

**2011KO APIRILAREN 15EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hamabosta.

**HILABETEA:** Apirila.

**URTEA:** Bi mila eta hamaika.

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederatzia

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**UDALBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:**

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Malu Valles Fernandez
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- Ana María Crespo Blanco
- M<sup>a</sup> Pilar Vispo Chamosa
- Manuela Uranga Segurola
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

## **1.- AURREKO AKTA.** 2011ko martxoaren 11ko aktaren onespena.

2011ko martxoaren 11n, egindako ohiko batzaraldiaren aktaren berri eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak ez du akta onartu bertan legez kanpo dagoen plataformak bileran parte hartu duelako.

Beste guztiek aktarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 16 (EAJ, PSE-EE/PSOE, ALKARBIDE, EB)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin akta onartu da.

**2.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA.** Zazpiburrieta, 4. area, Loinazpe, 19. area eta arau urbanistikoei buruzko 54. artikuluari buruz, Arau subsidiarioen aldaketa puntualari behin-behineko onespena ematea.

Alkate jaunak hitza emanda, Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du:

**“Gaia: Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa: Zazpiburrieta, 4. area, Loinazpe, 19. area eta arau urbanistikoak, 54. artikulua.**

### **AURREKARIAK**

*2011ko otsailaren 4ko batzaraldian, hasierako onespena eman zitzaion ondorengo Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari: Zazpiburrieta, 4. area, Loinazpe, 19. area eta arau urbanistikoak, 54. artikulua.*

*Hasierako onespena jaso zuen dokumentua jendaurrean jarri zen 2011ko otsailaren 9an eta martxoaren 4an hurrenez hurren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berria eta Diario Vascon iragarkiak argitaratuz. Hilabeteko epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.*

*2011ko apirilaren 8ko datarekin, Aholku Batzordeak txostena eman du eta adostasuna azaldu du proposatzen den aldaketarekin. Sozialista taldearen ordezkaria abstenitu egin da, 19. areakiko aldaketari buruz, izan ere, ez daude ados haurtzaindegijari ematen zaion irtenbidearekin.*

*Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten*

**Lehenik.** Aholku Batzordeak emandako gomendioa aintzakotzat hartzea.

**Bigarren.** Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari: Zazpiburrieta, 4. area, Loinazpe, 19. area eta arau urbanistikoak, 54. artikulua, behin-behineko onespena ematea.

**Hirugarren.** Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari espedientea igortzea, txostena emateko eskatuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

PP, EB, ALKARBIDE eta EAJko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “nosotros siguiendo el proceso que ha habido hasta ahora, vamos a mantener el posicionamiento de la abstención, dado que mantenemos la discrepancia en lo que es la modificación del área 19, Loinazpe, ya que no hemos llegado a un acuerdo sobre lo que podría ser la solución definitiva para cumplir la normativa. En el resto estamos de acuerdo. Por eso nos vamos a abstener.”

Alkate jaunak (EAJ): “respecto a la Haurreskola decir, que todos los trámites se están llevando a cabo entre nuestros técnicos y la Delegación. En consecuencia, no creo que haya discrepancias técnicas ni de aprobación. “

Bozketa eginda ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ, ALKARBIDE, EB, PP)  
Aurkako botoak: 0  
Abstentzioak: 5 (PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

**3.- ADIF- 48. AREAKO JABEAK eta UDALAREN arteko HITZARMENA.**  
Hasierako onespena.

Alkate jaunak hitza emanda, Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du:

**“Gaia: ADIF, Itola II 48 areako terrenoen jabeak eta Beasaingo Udalaren arteko hitzarmena.**

ADIFek aiptutakoek sinatzeko hitzarmena bidaltzen du. Hitzarmen horren bidez, terrenoak deskabutzen dira, Beasaingo udalerrian Beasain-Mendebalde zatian, Euskal Herriko trenbide sare berriaren plataforma Eraikitze-Proiektua exekutatzeko.

Desjabetzearen ordainetan, Udalak desjabetutako zoruaren eraikigarritasuna mantentzeko konpromisoa hartzen du.

Horrek esan nahi du hirigintza izaerako hitzarmen baten aurrean gaudela.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Ondoren transkribatzen diren hitzarmenen testuei hasierako onespena ematea eta jendaurrean jartzea 20 laneguneko epearen barruan alegazioak aurkeztu daitezzen. Alegaziorik ez bada aurkezten, hitzarmena behin betiko onartua geldituko da.”

#### HITZARMENAK

“



**EUSKADIKO TRENBIDE SARE BERRIAREN  
PLATAFORMA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN LANEK  
UKITUTAKO FINKAK PRESTAZ OKUPATZEKO  
DERRIGORREZKO DESJABETZE ESPEDIENTEA. ZATIA:  
BEASAIN MENDEBALDEA.**

**Lan horiek, Tren Sektoreari buruzko azaroaren 17ko  
39/2003 Lege araudiaren barruan daude.**

BEASAINGO UDALERRIA (GIPUZKOA)

**ELKARREN ARTEKO AKORDIOZ  
ESKURATZEKO HITZARMENA**

ESPEDIENTEA:  
020ADIF0908

Finka:  
H-20.0198-0302

Poligonoa

Lur-zatia

Katastro erreferentzia

12

66

Beasainen, 2011ko martxoaren 28an.

#### **BILDURIK**

José Luis Vacas Maestre jauna, Ustiapen Zuzendaria, Trenbide Azpiegituren Administratzaileko/ Administrador de Infraestructuras Ferroviarias-eko (ADIF) Kontratazio, Administrazio eta Baliabide Zuzendaria.

Eta Tomás Eizmendi Nájera jauna, NAN: 15.126.004-P, Beasain Lantzen S.A. (H-20.0198-0302 finka) merkataritza-sozietatearen ordezkari gisa, 2009ko irailaren 18an,

*Beasainen, Mariano Pablo Mlendo Martínez Notario jaunaren aurrean, haren protokoloaren 1306 zenbakia izanik, emaniko ahalordearen bertutez*

*Patxi Plazaola Muguruza jauna, Beasaingo Udaleko Alkate-Udalburua, 15.226.005-M IFZ. zenbakiduna, eta ondorio hauetarako helbidea San Martín Plaza, 1. 20200 Beasain duena.*

### **PARTE HARTZEN ETA JARDUTEN DUTE**

*Lehenbizikoa ADIF-en izenean eta hura ordezkatzuz, bere karguan dituen eskumenak erabiliz.*

*Bigarrena, Beasaingo (Gipuzkoa) udalerriko 12 poligonoko, H-20.0198-00302 finkaren, 66 lur-zatiaren jabe den "Beasain Lantzen, S.A." merkataritza-sozietatearen ordezkari gisa,*

*Patxi Plazaola Muguruza jauna, Beasaingo Udal Txit Gorenaren izenean eta hura ordezkatzuz, toki araubideko legediak ematen dizkion eskumenak erabiliz.*

*Bildutakoek, Hitzarmen hau gauzatzeko lege gaitasuna onartzen diote elkarri, eta, ondore horietarako,*

### **ADIERAZTEN DUTE**

- I.- Gipuzkoako Gobernu Ordezkarri-ordetzaren 2009ko uztailaren 13ko Ebazpen bitartez, Trenbide Azpiegituren Administratzaileak / Administrador de Infraestructuras Ferroviarias-ek burutu behar dituen lanen ondoriozko derrigorrezko desjabetze espedienteari dagokion jende aurreko informazio izapidea ireki zen, Euskadiko Trenbide Sare Berriaren plataforma Eraikitzeo Proiektuaren lanek, Beasain Mendebaldea zatia, ukitutako finkak prestaz okupatu ahal izateko, Beasaingo Udalerrian.*
- II.- Aipaturiko Proiektu hori, zati batean, Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioen Itola 48 Arearen perimetroaren barruan burutzen da. Arau Subsidiarioak 2010eko urriaren 1ean onetsi zen, eta 2010eko urriaren 11n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.*
- III.- Hirigintza jarduketa eremu horren barruan, eta aipaturiko Proiektuak ukiturik daude Beasain Lantzen, S.A. jabe den erregistroko honako finka hauek (hemendik aurrera, FINKAK):*

*Deskribapena: Landatarra: 1. BAT-BIS. Itola izeneko baserriaren jabetzek osatutako finka nagusiaren gainerako finkatik datorren landa lurra, gaur egunean Beasaingo herrian 2002 urteaz geroztik indarrean dagoen landalurren katastroko 12 poligonoko 66 lur-zatiari dagokiona. Hogeita zortzi mila bostehun eta hogeita sei metro eta laurogeita hamabost dezimetro karratuko azalera dauka. Beraz, bere mugak ondorengoak dira: Iparraldea, hasiera batean banatu zen finka nagusiaren gainerakoa eta bertan kokaturiko lanerako bidea eta Beasaingo Udalaren jabetza den Itola baserria; Hegoaldea, 2004ko ekainaren 25eko eskrituran banaturiko zatia edo Beasaingo Arau Subsidiarioen S-6*

Sektorea; Ekialdea, Makinetxe baserriaren jabetzak, Salsamendi baserriaren jabetza den Beasaingo herrian 2002 urteaz geroztik indarrean dagoen landalurren katastroko 12 poligonoko 126 lur-zatia eta Jesus Maria Echeverria Bengoechea jauna eta Maria Socorro Larraza Marin andrea ezkontideena den lur-saila; eta Mendebaldea, finka nagusiaren gainerakoa, finka nagusiaren lanerako bidea eta Beasaingo herrian 2002 urteaz geroztik indarrean dagoen landalurren katastroko 12 poligonoko 130 lur-zatia.

Titulua: Beasain Lantzen, S.A. A-20764809 IFZduna finkaren jabea da, Beasaingo Fernando Rodriguez Prieto notario jaunaren aurrean, bi mila eta lauko irailaren hamazazpian baimendutako ekarpen eskrituragatik; honek bi mila eta bosteko abuztuaren bian 12466 finkaren 3. inskribapena ekarri zuen 2036 Liburukiko, Beasaingo 224 Liburuaren, 60 Orrialdean, eta agregazioz, Beasaingo Mariano Pablo Melendo Martinez notario jaunaren aurrean bi mila eta zazpiko otsailaren hogeita hiruan baimendutako eskritura bidez, bi mila eta zazpiko maiatzaren hiruan 12466 finkaren 4. inskribapena ekarri zuelarik 2036 Liburukiko, Beasaingo 224 Liburuaren, 60 bueltaturiko Orrialdean.

Inskripzioa: 2036 Liburukia, Beasaingo 224 Liburua, 60 Orrialdea, 12466 Finka.

Kargak: kargatetik libre.

Hitzarmen honekin batera, 1 zenbakiko eranskin gisa, Tolosako 2 zenbakiko Jabetzaren Erregistroak emandako Informazio Ohar Sinplearen kopia eransten da.

KATASTROKO ERREFERENTZIA: 12 poligonoa, 66 lur-zatia.

- IV.- Deskribaturiko FINKA, desjabetzeak ukiturik dagoela zati batean, Euskadiko Trenbide Sare Berriaren plataforma Eraikitze Proiektuaren lanen, Beasain Mendebaldea zatia, ondorioz, Sustapen Ministerioak izapideturiko ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrendarekin bat etorriz, eta H-20.0198-0302 zenbakiko lur-zati gisa agertzen dira. Hurrengo laukian, desjabetzeak ukitutako azalaren xehetasuna biltzen da:

<b>Finka zk.</b>	<b>Lur zatia</b>	<b>Polig.</b>	<b>Erregist roko finka</b>	<b>Erregistr o azalera</b>	<b>Katastro azalera</b>	<b>Desjabetze ak ukitutako azalera</b>
H-20.0198-0302	66	12	12466	28.526,95 m <sup>2</sup>	372.372 m <sup>2</sup>	228 m <sup>2</sup>

Hitzarmen honi, desjabetzeak ukitutako FINKEN zatiak grafiaturik dauden planoan eransten zaio, desjabetzeak ukituriko Ondasunen eta Eskubideen zerrendaren Ediktuaren argitalpenaren kopia, 2009ko uztailaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, eta baita 2009ko urriaren 30eko Okupazioaren aurreko Akten kopiak eta proiektuko H-20.0198-0302 eta H-20.0198-0304 finken arteko mugatze Akta ere.

V.- Hitzarmen hau, 1954ko abenduaren 16ko Derrigorrezko Besterentzeari buruzko Legearen 24. artikuluan eta haren Araudiaren 5.2.3<sup>a</sup> artikuluan oinarriturik gauzatzen da. Bertan aurreikusten da desjabetu beharreko ondasunak adiskidantzaz edo aldean arteko adostasunez eskuratzea, eta, ondorioz, haren sinadurarekin amaiera ematen zaio desjabetze prozedurari, desjabetze honek ukitutako FINKEI edo FINKEN zatiei dagokienez.

Adierazitako guztiarengatik, aldeek Hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, honako klausula hauek kontuan izanik.

## **KLAUSULAK**

### **LEHENA.- HITZARMENAREN XEDEA.**

Hitzarmen honen xedea, Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioen Itola 48 Arearen barruan dauden Euskadiko Trenbide Sare Berriaren plataforma Eraikitze Proiektuaren lanek, Beasain Mendebaldea zatian, ukituriko lurak adiskidantzazko desjabetzez eskuratzea da, hirigintza eskubideak Beasain Lantzen, S.A.ren alde erreserbatuz.

Ondorioz, desjabetzearen onuradun den ADIF-ek, kargatik eta zergatik libre, 228 m<sup>2</sup>ko azalera jasotzen du, 12466 zenbakiko erregistroko finkaren azaleraren zati bati dagokiona (H-20.0198-0302 lur-zatia), Hitzarmen honetako IV. Esponendoan dagoen laukian zehaztu dena, eta hurrengo klausulan aurreikusitako eran bananduko dena. ADIF-ek Hitzarmen honen sinaduraren ondorioz bereganatuko duen azalera osoa (228 m<sup>2</sup>), 2. eranskin gisa aurkezten den planoan grafiaturik adierazten da.

Dena den, Hitzarmen honen xedea ez da bananduriko FINKAK beren beregi osatzen ez dituzten FINKEI buruzko beste edozein zatitan eragina izan dezaketen desjabetzeari dagokion desjabetze espedientea, aldi baterako okupazioa eta sortzapena.

### **BIGARRENA.- TRANSMITITU BEHARREKO FINKAERAN BANANTZEA**

Desjabetzeak ukitutako FINKAK transmititu ahal izateko, eta desjabetze partziala jasango duten horiei dagokienez, beharrezko zatiak bananduko dira, eta horiek, ondoren deskribatuko diren FINKA BANANDUAK izango dira, eta GAINERAKO FINKA gisa geratuko dira, deskribatu ere egiten diren hauek:

1.) 12466 ZENBAKIKO ERREGISTRO FINKA (LUR-ZAT. 66, POLIG. 12)

#### **FINKA BANANDUA:**

Deskribapena: Itola baserrira doan eta trenbidearen plataformara joateko bidearekin bat datorren, bide publikoak banaturiko hiru zati ez-konexuk osaturiko 228 m<sup>2</sup>ko desjabetze azalera lur-saila. Mugak: Iparraldea, bide publikoa, Jesus M<sup>a</sup> Echeverria eta finkaren gainerakoa; Hegoaldea, finkaren gainerakoa, Jesus M<sup>a</sup> Echeverria eta bide publikoa; Ekialdea, bide publikoa eta finkaren gainerakoa; Mendebaldea, finkaren gainerakoa eta bide publikoa.

## **GAINERAKO FINKA:**

*Deskribapena: Landatarra: 1. BAT-BIS. Itola izeneko baserriaren jabetzek osatutako finka nagusiaren gainerako finkatik datorren landa lurra, gaur egunean Beasaingo herrian 2002 urteaz geroztik indarrean dagoen landalurren katastroko 12 poligonoko 66 lur-zatiari dagokiona. Hogeita zortzi mila bostehun eta hogeita sei metro eta laurogeita hamabost dezimetro karratuko azalera dauka. Beraz, bere mugak ondorengoak dira: Iparraldea, hasiera batean banatu zen finka nagusiaren gainerakoa eta bertan kokaturiko lanerako bidea eta Beasaingo Udalaren jabetza den Itola baserria; Hegoaldea, 2004ko ekainaren 25eko eskrituran banaturiko zatia edo Beasaingo Arau Subsidiarioen S-6 Sektorea; Ekialdea, Makinetxe baserriaren jabetzak, Salsamendi baserriaren jabetza den Beasaingo herrian 2002 urteaz geroztik indarrean dagoen landalurren katastroko 12 poligonoko 126 lur-zatia eta Jesus Maria Echeverria Bengoechea jauna eta Maria Socorro Larraza Marin andrea ezkontideena den lur-saila; eta Mendebaldea, finka nagusiaren gainerakoa, finka nagusiaren lanerako bidea eta Beasaingo herrian 2002 urteaz geroztik indarrean dagoen landalurren katastroko 12 poligonoko 130 lur-zatia.*

*Titulua: 2004ko irailaren 17an, Fernando Rodríguez Prieto, Beasaingo notario jaunaren aurrean emaniko Beasain Lantzen, S.A.ren helburu sozialen aldaketa, kapital-gehikuntzaren eta Estatutuen aldaketa partzialaren eskrituraren bitartez eskuratua, haren protokoloaren 1571 zenbakia izanik.*

*Kargak: kargatetik libre.*

*Beren beregi eskatzen da dagokion zerga ordaindu beharretik libre geratzea, banantzea desjabetzearen ondorioz gertatu baita.*

## **HIRUGARRENA.- FINKA BANANDUAREN ETA DESJABETUAREN TRANSMISIOA.**

*Tomás Eizmendi Nájera jaunak, NAN 15.126.004-P, Beasain Lantzen, S.A. merkataritza-sozietatearen ordezkari gisa, ADIF-i transmititzen dio desjabeturiko finka (hemendik aurrera TRANSMITITURIKO FINKA), kargetatik eta zergetatik libre, eta desjabeturiko finkei dagokien hirigintza aprobetxamendua erreserbatuz.*

*Beren beregi eskatzen da dagokion zerga ordaindu beharretik libre geratzea, banantzea desjabetzearen ondorioz gertatu baita.*

## **LAUGARRENA.- DESJABETZEARENGATIKO KALTE-ORDAINA.**

*Aldeek adosten dute TRANSMITITURIKO FINKEN okupazioak eta transmisioak ez dutela inolako diru ordainketarik eragingo, izan ere, Beasain Lantzen, S.A.k hirigintza aprobetxamendua erreserbatzen baitu, ondorengo klausuletan adosten den eran, hitzarmen honen Seigarren Klausulan aurreikusiriko salbuespenarekin.*

*Hori dela eta, TRANSMITITURIKO FINKEKIN erlazionaturik ez da inolako kalte-ordainik ordainduko, okupazio azkarraren ondoriozko kalteak direla eta, ezta desjabetzea jasan duenari dagozkion afektazio saririk, kalte emergenterik, lortu gabeko irabazirik eta eskubide eta interesik ere, egunera arte sorturiko interesak barne.*



Aipaturiko aurreikuspenak ez ditu kaltetzen Beasain Lantzen, S.A.k TRANSMITITURIKO FINKEN okupazioarengatik dituen eskubideak, okupazio hori aldi baterakoa bada ere, edo TRANSMITITURIKO FINKA horien gainean sortzapean guneak eratzeagatik, edo bera titular den beste edozein eskubiderengatik.

#### **BOSGARRENA.- APROBETXAMENDUAREN ERRESERBA.**

Desjabetzea jasan duten Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioen Itola 48 Arearen perimetroaren barruan daude. Arau Subsidiarioak 2010eko urriaren 1ean onetsi zen, eta 2010eko urriaren 11n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Ondorioz, hirigintza kudeaketa prozesuan parte hartu ahal izango dute. Prozesu horren bitartez banatze dira planeamenduaren ondoriozko irabaziak eta kargak.

Derrigorrezko Desjabetze Lege Araudiaren 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aldeek adostu egiten dute Beasain Lantzen, S.A.k TRANSMITITURIKO FINKEI dagokien aprobetxamendua erreserbatzea. Hori kalkulatzeko, gainerako finkari aplikatu ahal zaion hirigintza planteamenduan aurreikusten den eraikigarritasun indizea aplikatuz kalkulatu da, gainerako finka horren hirigintza planeamenduaren burutzapena burutzen den unean.

Horretarako, Beasaingo Udal Txit Gorenak, Administrazio Jardule gisa, konpromisoa hartzen du, etorkizuneko jarduketa eremu horren barruan Desjabeturiko FINKAK sartzeko, jarduketa eremuari gehituriko finka gisa; sistemetara bideratuko dira, eta kargen eta irabazien banaketaren parte izango dira. Beasain Lantzen, S.A. izango da finka horiei dagokien aprobetxamenduaren onuraduna, aurreko lerroaldean eginiko erreserba kontuan izanik.

Aipaturiko prozesuaren ondoriozko kargak Beasain Lantzen, S.A.ri bakarrik eskatu ahal izango zaizkio.

#### **SEIGARRENA.- DESJABETZEAREN BALIO JUSTUA.**

Hitzarmen hau sinatu eta lau urte igaro ondoren, Beasain Lantzen, S.A.ri Hitzarmen honen bitartez erreserbatutako aprobetxamendua gauzatzeko aukera emango dien FINKEN inolako hirigintza berrantolamendurik burutu ez bada, honako aukera hauetako bat hautatu ahal izango da: a) Hitzarmen honetan aurreikusiriko epea luzatzea eskatu, eta hori bi aldeen arteko adostasunez baino ezin izango da egin; edo b) Hitzarmen honetan aurreikusten den hirigintza aprobetxamendua baztertu, eta eskumena duen Administrazioari (ADIF), transmitituriko finkaren balio justua eskatzea, esku-dirutan.

Ondore horietarako, aldeek adosten dute balio justua TRANSMITITURIKO FINKEN egungo balioa gehi dagokion KPI-a izango dela, eta, horrela, kopuru hori 1.710,00 €-koa izango da. Diru kopuru hori Hitzarmen hau sinatzen den unetik ordainketa egiten den unera arteko KPI-aren mugimenduekin eguneratu beharko da

*Balio horren barruan kalte-ordainak jaso dezaketen kontzeptu guztiak sartzen dira. Beasain Lantzen, S.A.k kontzeptu horien inguruan besterik ez eskatzeko konpromisoa hartzen du.*

*Hitzarmen hau, hirigintza legediarekin bat etorriz, Jabetzaren Erregistroan inskribatu ahal izango da, hori betetzearen berme gisa.*

#### **ZAZPIGARRENA.- ONDORENGO AGIRIAK EMATEKO KONPROMISOA.**

*Beharrezkoa izango balitz agiri honen konponketari ekitea, aldeek beharrezkoak diren agiri publiko eta pribatu guztiak emateko, Hitzarmenean biltzen diren xedapenen erabateko eraginkortasuna lortzeko, eta Tolosako 2 zenbakiko Jabetzaren Erregistroan inskribatu ahal izateko.*

#### **ZORTZIGARRENA.- HITZARMENAREN ERAGINKORTASUNA.**

*Azpiegitura Zuzendaritza Nagusiak, Trenbide Azpiegituren Enpresa Administratzaile Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluaren martxoaren 31ko argitalpena ebatziz, 2006an emandako Ebazpenean adierazitakoarekin bat etorriz, kontuan izanik organo hori dela bertan aipatzen diren erakundearen barne organo guztien ordezkari, eta adierazten diren hedapenarekin, desjabetze espedienteetako ondasunen eta eskubideen eskuratzea, dagozkien balio justuen ezarpena eta okupazio hitzarmenak onetsi ahal izateko (2006ko maiatzaren 8ko 109 zenbakiko BOE), Balio justu hau hobetutzat ulertuko da, berau aipaturiko Enpresa Erakunde Publikoaren organo eskudunak baimentzen eta onesten duen unetik aurrera.*

#### **BEDERATZIGARRENA.- JURISDIKZIOA.**

*Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa du eta, ondorioz, bere interpretazioaren eta betetzearen inguruan sor daitezkeen auzizko gaiak Administrazioarekiko Auzibide jurisdikzionalaren eskumenen menpe egongo dira.*

*Eta adostasunaren froga gisa, aldeek agiri hau sinatzen dute, buruan adierazten diren tokian eta egunean. “*



**EUSKADIKO TRENBIDE SARE BERRIAREN  
PLATAFORMA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN LANEK  
UKITUTAKO FINKAK PRESTAZ OKUPATZEKO  
DERRIGORREZKO DESJABETZE ESPEDIENTEA. ZATIA:  
BEASAIN MENDEBALDEA.**

**Lan horiek, Tren Sektoreari buruzko azaroaren 17ko  
39/2003 Lege araudiaren barruan daude.**

BEASAINGO UDALERRIA (GIPUZKOA)

**ELKARREN ARTEKO AKORDIOZ  
ESKURATZEKO HITZARMENA**

ESPEDIENTEA:  
020ADIF0908

Finka:  
H-20.0198-0304

Poligonoa

Lur-zatia

Katastro erreferentzia

12

66

Beasainen, 2011ko martxoaren 28an.

**BILDURIK**

José Luis Vacas Maestre jauna, Ustiapen Zuzendaria, Trenbide Azpiegituren Administratzaileko/ Administrador de Infraestructuras Ferroviarias-eko (ADIF) Kontratazio, Administrazio eta Baliabide Zuzendaria.

Eta Jesus M<sup>a</sup> Echeverria Bengoechea jauna, Anartz Echeverria Larraza eta Erkuden Echeverria Larraza andrea aipaturiko finkaren jabe bezala.

Patxi Plazaola Muguruza jauna, Beasaingo Udaleko Alkate-Udalburua, 15.226.005-M IFZ. zenbakiduna, eta ondorio hauetarako helbidea San Martín Plaza, 1. 20200 Beasain duena.

**PARTE HARTZEN ETA JARDUTEN DUTE**

Lehenbizikoa ADIF-en izenean eta hura ordezkatzuz, bere karguan dituen eskumenak erabiliz.

Bigarrena, H-20.0198-00304 finkaren, Beasaingo (Gipuzkoa) udalerriko 12 poligonoko, 66 lur-zatiaren, jabe gisa,

Patxi Plazaola Muguruza jauna, Beasaingo Udal Txit Gorenaren izenean eta hura ordezkatzuz, toki araubideko legediak ematen dizkion eskumenak erabiliz.

Bildutakoek, Hitzarmen hau gauzatzeko lege gaitasuna onartzen diote elkarri, eta, ondore horietarako,

## **ADIERAZTEN DUTE**

- I.-** Gipuzkoako Gobernu Ordezkariordeztaren 2009ko uztailaren 13ko Ebazpen bitartez, Trenbide Azpiegituren Administrazioaileak / Administrador de Infraestructuras Ferroviarias-ek burutu behar dituen lanen ondoriozko derrigorrezko desjabetze espedienteari dagokion jende aurreko informazio izapidea ireki zen, Euskadiko Trenbide Sare Berriaren plataforma Eraikitzeo Proiektuaren lanek, Beasain Mendebaldea zatia, ukitutako finkak prestaz okupatu ahal izateko, Beasaingo Udalerrian.
- II.-** Aipaturiko Proiektu hori, zati batean, Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioen Itola 48 Arearen perimetroaren barruan burutzen da. Arau Subsidiarioak 2010eko urriaren 1ean onetsi zen, eta 2010eko urriaren 11n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.
- III.-** Hirigintza jarduketa eremu horren barruan, eta aipaturiko Proiektuak ukiturik daude Jesus M<sup>o</sup> Echeverria Bengoa jauna jabe den erregistroko honako finka hauek (hemendik aurrera, FINKAK):

*Deskribapena: Landatarra: Beasainen dagoen eta ondorengo lur-sailek osatzen duten etenkako finka: Beasainen dagoen laurehun eta laurogeita zazpi metro karratuko lur-zatia, ondorengo mugekin: Iparraldea, Beasaingo Udalaren lur-sailak; Hegoaldea, Estanda ibaia eta Beasaingo Udalaren lur-saila; Ekialdea, Beasaingo Udalaren lur-saila eta orga bidea; eta Mendebaldea, Beasaingo Udalaren lur-sailak. ETXE-AZPIKOA deituriko lekuan dagoen etxaldea, Beasaingo jurisdikzioko bederatzi poligonoan, hirurogeita bi area eta hiru zentia area neurtzen ditu eta bere mugak horrela eguneratzen dira: Iparraldea, Hegoaldea eta Mendebaldea, Beasain Lantzen, S.A. kide bakarreko merkataritza-elkartearekin, eta Mendebaldea, aurreko lerrokadan deskribaturiko lur-zatia.*

*Titulua: 2004ko ekainaren 25ean, Fernando Rodriguez Prieto, Beasaingo notario jaunaren aurrean, alde batetik Beasaingo Udalak eta bestetik Jesus Maria Echeverria Bengoechea jauna eta María Socorro Larraza Marin andrea ezkontideek emaniko segregazio, trukatzeko eta agregazio eskritura, haren protokoloaren 1189 zenbakia izanik, eta 2007ko otsailaren 23an, Mariano-Pablo Melendo Martinez, Beasaingo notario jaunaren aurrean alde batetik Beasaingo Udalak eta bestetik Jesus Maria Echeverria Bengoechea jauna eta María Socorro Larraza Marin andrea ezkontideek emaniko segregazio, trukatzeko eta agregazio eskritura, haren protokoloaren 325 zenbakia izanik.*

*Inskripzioa: 1321 Liburukia, 141 Liburua, 147 Orrialdea, 5318 Finka, 7. inskribapena.*

*Kargak: kargatutik libre.*

*Hitzarmen honekin batera, 1 zenbakiko eranskin gisa, Tolosako 2 zenbakiko Jabetzaren Erregistroak emandako Informazio Ohar Sinplearen kopia eransten da.*

**KATASTROKO ERREFERENTZIA:** 12 poligonoa, 66 lur-zatia.

- IV.-** Deskribaturiko FINKA, desjabetzeak ukiturik dagoela zati batean, Euskadiko Trenbide Sare Berriaren plataforma Eraikitze Proiektuaren lanen, Beasain Mendebaldea zatia, ondorioz, Sustapen Ministerioak izapideturiko ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrendarekin bat etorri, eta H-20.0198-0304 zenbakiko lur-zati gisa agertzen dira. Hurrengo laukian, desjabetzeak ukitutako azalaren xehetasuna biltzen da:

<b>Finka zk.</b>	<b>Lur zatia</b>	<b>Polig.</b>	<b>Erregistro roko finka</b>	<b>Erregistro azalera</b>	<b>Katastro azalera</b>	<b>Desjabetzeak ukitutako azalera</b>
H-20.0198-0304	66	12	5318	6.690 m <sup>2</sup>	372.372 m <sup>2</sup>	122 m <sup>2</sup>

Hitzarmen honi, desjabetzeak ukitutako FINKEN zatiak grafiaturik dauden planoan erantsen zaio, desjabetzeak ukituriko Ondasunen eta Eskubideen zerrendaren Ediktuaren argitalpenaren kopia, 2009ko uztailaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, eta baita 2009ko urriaren 30eko Okupazioaren aurreko Akten kopia eta proiektuko H-20.0198-0302 eta H-20.0198-0304 finken arteko mugatze Akta ere.

- V.-** Hitzarmen hau, 1954ko abenduaren 16ko Derrigorrezko Besterentzeari buruzko Legearen 24. artikuluan eta haren Araudiaren 5.2.3<sup>a</sup> artikuluan oinarriturik gauzatzen da. Bertan aurreikusten da desjabetu beharreko ondasunak adiskidantzaz edo aldean arteko adostasunez eskuratzea, eta, ondorioz, haren sinadurarekin amaiera ematen zaio desjabetze prozedurari, desjabetze honek ukitutako FINKEI edo FINKEN zatiei dagokienez.

Adierazitako guztiarengatik, aldeek Hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, honako klausula hauek kontuan izanik.

## **KLAUSULAK**

### **LEHENA.- HITZARMENAREN XEDEA.**

Hitzarmen honen xedea, Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioen Itola 48 Arearen barruan dauden Euskadiko Trenbide Sare Berriaren plataforma Eraikitze Proiektuaren lanek, Beasain Mendebaldea zatian, ukituriko lurak adiskidantzazko desjabetzez eskuratzea da, hirigintza eskubideak Jesús M<sup>a</sup> Echeverria Bengoche jaunaren alde erreserbatuz.

Ondorioz, desjabetzearen onuradun den ADIF-ek, kargatik eta zergatik libre, 122 m<sup>2</sup>ko azalera jasotzen du, 5318 zenbakiko erregistroko finkaren azalaren zati bati dagokiona (H-20.0198-0304 lur-zatia), Hitzarmen honetako IV. Esponendoan dagoen laukian zehaztu dena, eta hurrengo klausulan aurreikusitako eran bananduko dena. ADIF-ek Hitzarmen honen sinaduraren ondorioz bereganatuko duen azalera osoa (122 m<sup>2</sup>), 2. eranskin gisa aurkezten den planoan grafiaturik adierazten da.

*Dena den, Hitzarmen honen xedea ez da bananduriko FINKAK beren beregi osatzen ez dituzten FINKEI buruzko beste edozein zatitan eragina izan dezaketen desjabetzeari dagokion desjabetze espedientea, aldi baterako okupazioa eta sortzapena.*

### **BIGARRENA.- TRANSMITITU BEHARREKO FINKAERAN BANANTZEA**

*Desjabetzeak ukitutako FINKAK transmititu ahal izateko, eta desjabetze partziala jasango duten horiei dagokienez, beharrezko zatiak bananduko dira, eta horiek, ondoren deskribatuko diren FINKA BANANDUAK izango dira, eta GAINERAKO FINKA gisa geratuko dira, deskribatu ere egiten diren hauek:*

*1.) 5318 ZENBAKIKO ERREGISTRO FINKA (LUR-ZAT. 66, POLIG. 12)*

*FINKA BANANDUA:*

*Deskribapena: Itola baserrira doan eta trenbidearen plataformara joateko bidearekin bat datorren, 122 m<sup>2</sup>ko desjabetze azalerako lur-saila,. Mugak: Iparraldea, bide publikoa; Hegoaldea, Beasain Lantzen, S.A.; Ekialdea, bide publikoa; Mendebaldea, finkaren gainerakoa.*

*GAINERAKO FINKA:*

*Deskribapena: Landatarra: Beasainen dagoen eta ondorengo lur-sailek osatzen duten etenkako finka: Beasainen dagoen laurhun eta laurogeita zazpi metro karratuko lur-zatia, ondorengo mugekin: Iparraldea, Beasaingo Udalaren lur-sailak; Hegoaldea, Estanda ibaia eta Beasaingo Udalaren lur-saila; Ekialdea, Beasaingo Udalaren lur-saila eta orga bidea; eta Mendebaldea, Beasaingo Udalaren lur-sailak. ETXE-AZPIKOA deituriko lekuan dagoen etxaldea, Beasaingo jurisdikzioko bederatzizko poligonoan, hirurogeita bi area eta hiru zentia area neurtzen ditu eta bere mugak horrela eguneratzen dira: Iparraldea, Hegoaldea eta Mendebaldea, Beasain Lantzen, S.A. kide bakarreko merkataritza-elkartearekin, eta Mendebaldea, aurreko lerrokadan deskribaturiko lur-zatia.*

*Titulua: 2004ko ekainaren 25ean, Fernando Rodriguez Prieto, Beasaingo notario jaunaren aurrean, alde batetik Beasaingo Udalak eta bestetik Jesus Maria Echeverria Bengoechea jauna eta María Socorro Larraza Marin andrea ezkontideek emaniko segregazio, trukatzeko eta agregazio eskritura, haren protokoloaren 1189 zenbakia izanik, eta 2007ko otsailaren 23an, Mariano-Pablo Melendo Martinez, Beasaingo notario jaunaren aurrean alde batetik Beasaingo Udalak eta bestetik Jesus Maria Echeverria Bengoechea jauna eta María Socorro Larraza Marin andrea ezkontideek emaniko segregazio, trukatzeko eta agregazio eskritura, haren protokoloaren 325 zenbakia izanik.*

*Kargak: kargatutik libre.*

*Beren beregi eskatzen da dagokion zerga ordaindu beharretik libre geratzea, banantzea desjabetzearen ondorioz gertatu baita.*

## **HIRUGARRENA.- FINKA BANANDUAREN ETA DESJABETUAREN TRANSMISIOA.**

*Jesús M<sup>a</sup> Echeverria Bengoechea jaunak, ADIF-i transmititzen dio desjabeturiko finka (hemendik aurrera TRANSMITITURIKO FINKA), kargetatik eta zergetatik libre, eta desjabeturiko finkei dagokien hirigintza aprobetxamendua erreserbatuz.*

*Beren beregi eskatzen da dagokion zerga ordaindu beharretik libre geratzea, banantzea desjabetzearen ondorioz gertatu baita.*

## **LAUGARRENA.- DESJABETZEARENGATIKO KALTE-ORDAINA.**

*Aldeek adosten dute TRANSMITITURIKO FINKEN okupazioak eta transmisioak ez dutela inolako diru ordainketarik eragingo, izan ere, Jesús M<sup>a</sup> Echeverria Bengoechea hirigintza aprobetxamendua erreserbatzen baitu, ondorengo klausuletan adosten den eran, hitzarmen honen Seigarren Klausulan aurreikusiriko salbuespenarekin.*

*Hori dela eta, TRANSMITITURIKO FINKEKIN erlazionaturik ez da inolako kalte-ordainik ordainduko, okupazio azkarraren ondoriozko kalteak direla eta, ezta desjabetzea jasan duenari dagozkion afektazio saririk, kalte emergenterik, lortu gabeko irabazirik eta eskubide eta interesik ere, egunera arte sorturiko interesak barne.*

*Aipaturiko aurreikuspenak ez ditu kaltetzen Jesús M<sup>a</sup> Echeverria Bengoecheak TRANSMITITURIKO FINKEN okupazioarengatik dituen eskubideak, okupazio hori aldi baterakoa bada ere, edo TRANSMITITURIKO FINKA horien gainean sortzapen guneak eratzeagatik, edo bera titular den beste edozein eskubiderengatik.*

## **BOSGARRENA.- APROBETXAMENDUAREN ERRESERBA.**

*Desjabetzea jasan duten Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioen Itola 48 Arearen perimetroaren barruan daude. Arau Subsidiarioak 2010eko urriaren 1ean onetsi zen, eta 2010eko urriaren 11n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Ondorioz, hirigintza kudeaketa prozesuan parte hartu ahal izango dute. Prozesu horren bitartez banatze dira planeamenduaren ondoriozko irabaziak eta kargak.*

*Derrigorrezko Desjabetze Lege Araudiaren 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aldeek adostu egiten dute Jesús M<sup>a</sup> Echeverria Bengoecheak TRANSMITITURIKO FINKEI dagokien aprobetxamendua erreserbatzea. Hori kalkulatzeko, gainerako finkari aplikatu ahal zaion hirigintza planteamenduan aurreikusten den eraikigarritasun indizea aplikatuz kalkulatu da, gainerako finka horren hirigintza planeamenduaren burutzapena burutzen den unean.*

*Horretarako, Beasaingo Udal Txit Gorenak, Administrazio Jardule gisa, konpromisoa hartzen du, etorkizuneko jarduketa eremu horren barruan Desjabeturiko FINKAK sartzeko, jarduketa eremuari gehituriko finka gisa; sistemetara bideratuko dira, eta kargen eta irabazien banaketaren parte izango dira. Jesús M<sup>a</sup> Echeverria Bengoechea izango da finka horiei dagokien aprobetxamenduaren onuraduna, aurreko lerroaldean eginiko erreserba kontuan izanik.*

*Aipaturiko prozesuaren ondoriozko Jesús M<sup>a</sup> Echeverria Bengoecheari bakarrik eskatu ahal izango zaizkio.*

#### **SEIGARRENA.- DESJABETZEAREN BALIO JUSTUA.**

*Hitzarmen hau sinatu eta lau urte igaro ondoren, Jesús M<sup>a</sup> Echeverria Bengoecheari Hitzarmen honen bitartez erreserbatutako aprobetxamendua gauzatzeko aukera emango dien FINKEN inolako hirigintza berrantolamendurik burutu ez bada, honako aukera hauetako bat hautatu ahal izango da: a) Hitzarmen honetan aurreikusiriko epea luzatzea eskatu, eta hori bi aldeen arteko adostasunez baino ezin izango da egin; edo b) Hitzarmen honetan aurreikusten den hirigintza aprobetxamendua baztertu, eta eskumena duen Administrazioari (ADIF), transmitituriko finkaren balio justua eskatzea, esku-dirutan.*

*Ondore horietarako, aldeek adosten dute balio justua TRANSMITITURIKO FINKEN egungo balioa gehi dagokion KPI-a izango dela, eta, horrela, kopuru hori 915,00 €-koa izango da. Diru kopuru hori Hitzarmen hau sinatzen den unetik ordainketa egiten den unera arteko KPI-aren mugimenduekin eguneratu beharko da*

*Balio horren barruan kalte-ordainak jaso dezaketen kontzeptu guztiak sartzen dira. Jesús M<sup>a</sup> Echeverria Bengoecheak kontzeptu horien inguruan besterik ez eskatzeko konpromisoa hartzen du.*

*Hitzarmen hau, hirigintza legediarekin bat etorriz, Jabetzaren Erregistroan inskribatu ahal izango da, hori betetzearen berme gisa.*

#### **ZAZPIGARRENA.- ONDORENGO AGIRIAK EMATEKO KONPROMISOA.**

*Beharrezkoa izango balitz agiri honen konponketari ekitea, aldeek beharrezkoak diren agiri publiko eta pribatu guztiak emateko, Hitzarmenean biltzen diren xedapenen erabateko eraginkortasuna lortzeko, eta Tolosako 2 zenbakiko Jabetzaren Erregistroan inskribatu ahal izateko.*

#### **ZORTZIGARRENA.- HITZARMENAREN ERAGINKORTASUNA.**

*Azpiegitura Zuzendaritza Nagusiak, Trenbide Azpiegituren Enpresa Administrazioaile Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluaren martxoaren 31ko argitalpena ebatziz, 2006an emandako Ebazpenean adierazitakoarekin bat etorriz, kontuan izanik organo hori dela bertan aipatzen diren erakundearen barne organo guztien ordezkari, eta adierazten diren hedapenarekin, desjabetze espedienteetako ondasunen eta eskubideen eskuratzea, dagozkien balio justuen ezarpena eta okupazio hitzarmenak onetsi ahal izateko (2006ko maiatzaren 8ko 109 zenbakiko BOE), Balio justu hau hobetutzat ulertuko da, berau aipaturiko Enpresa Erakunde Publikoaren organo eskudunak baimentzen eta onesten duen unetik aurrera.*

#### **BEDERATZIGARRENA.- JURISDIKZIOA.**



*Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa du eta, ondorioz, bere interpretazioaren eta betetzearen inguruan sor daitezkeen auzizko gaiak Administrazioarekiko Auzibide jurisdikzionalaren eskumenen menpe egongo dira.*

*Eta adostasunaren froga gisa, aldeek agiri hau sinatzen dute, buruan adierazten diren tokian eta egunean.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**4.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.** 2011ko martxoaren 8tik 2011ko apirilaren 11 bitarte Alkateak emandako Ebazpenak.

Ezagutzera ematen da, 2011ko martxoaren 8tik 2011ko apirilaren 11 bitarte Alkateak emandako Ebazpenen zerrenda.

#### **5.- ESKAERA ETA GALDERAK.**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

#### **HAUTESKUNDE-MAHAIEN ZERRENDA**

Alkate jaunak esan du, 2011ko apirilaren 26an, goizeko 9,00etan hauteskunde mahaien zozketa egingo dela eta dei egin zinegotziei etortzeko.

#### **BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ZOZKETA**

Alkatea jaunak adierazi du, 2011ko apirilaren 28an, arratsaldeko seitan, Usurbe zinean Joan XXIII, kaleko babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatzeko zozketa publikoa, Notario jaunaren aurrean egingo dela.

#### **AUTODETERMIANCIÓN DEL PAÍS VASCO**

Alkata jaunak (EAJ): “el 18 de abril de 1931, el Ayuntamiento de Itsasondo hace una declaración institucional en favor del derecho de autodeterminación del País Vasco, proclamando la república vasca confederada con las demás repúblicas. Hace 80 años de eso, y por ello todos los Ayuntamientos del Goierri, queremos reiterar esta declaración (este Pleno en el mes de octubre ya lo hizo), para ver la unión que existe entre 1931 y 2011 sobre la proclamación de este derecho del pueblo vasco. Se va a realizar un acto público reuniéndonos en Itsasondo los dieciocho Alcaldes de los municipios de la comarca.”

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, bederatzia eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.